

# elkarberri

# 69

## Sari Hau Zuretzat Da

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2021eko urtarrila - martxoa / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065






**Jon Herrero**
*EFEO-ko batzordekidea*

editoriala

# Hurrengo eguna

Bizitzen ari garen pandemia-egoeran, ez daukat hitzik azaltzeko zein harro sentitzen naizen kolektibo honen kide izateaz, egunero lan egiten baitu daukan onena emateko eta herritarrak behar bezala artatzeko, nahiz eta pertsona asko ez diren gai egiten ari garen lana behar bezala aintzatesteko.

Pieza garrantzitsua gara osasun-engranajean, eta, hobetzen jarraitzeaz gain, ahaleginak egiten ditugu komunitateari zerbitzu egokiak emateko eta euren osasun-arazoak konpontzeko.

Eskerrak ematen dizkiet kolektibo osoari etengabe informazioa helarazi dion taldeari, kasu zehatz bakoitzari dagokion eta interpretatzeko eta testuinguruan jartzeko oso zaila den araudiaren nahastea eta anbiguotasuna alde batera utzita.

Bestalde, zalantzak sortu zaizkit: elkargo askotako diru-sarreren beherakadak eta jarduera sortzailearen, ideia berrien eta norabide-aldaketa baten faltak, gure segurtasun- eta erosotasun-eremutik at, denboran izoztutako kaskarkeria-giro antzu bat sor dezake pandemiaren ondorioz.

Baltasar Graciánek esan zuen moduan: “Konfiantza axolagabekeriaren ama da, eta axolagabekeria alferkeriaren lehengusu propioa”.

# aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| **3** editoriala | **4** berriak | **12** iritxi |
| **16** aholkularitza juridikoa | **18** iragarkiak | **22** elkargokide |


**Lehendakaritza eta Zuzendaritza**
Iban Arrien Celaya
**Koordinazioa:**
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Gauzatzea eta Maketazioa**
J&JCreativos
**Argazkigintza**
ORO
**Argitalpena**
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
**Hiruhilabeteko argitalpena**

**Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.**
**Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.**

**Elkargokieei emateko dohainezko alea**




# Batzar Nagusia

## Aho batez onartu zituzten 2021erako Aurrekontu Orokorrak.

Joan den abenduaren 19an egin zen 2020ko azken batzarra. Pandemiaren zela eta, online egin zen lehen aldiz.

Hasi aurretik eta batzarraren formatu berezia zuelako, parte-hartzaileei bilerarako beharrezkoak ziren argibideak eman zitzaizkien.

Argibideak eman ostean, aurreko batzarreko akta onetsi zuten.

Horren ostean, EFEOko presidente Iban Arrienek lanbidearen egoeraren laburpen xehatua egin zuen, eta bereziki aipatu nahi izan zuen eremu publikoko fisioterapeutek egindako lana, kaltetutako pertsonen arretarako taldeetan beren gain hartutako rolagatik eta erakutsitako prestutasun funtzionalagatik.

Era berean, nabarmendu egin zituen esparru pribatuari lotutako kolektiboak identifikatutako zailtasunak eta erakutsitako heldutasun-maila, zeina argi eta garbi adierazi den elkarlanerako behin eta berriz eta etengabe garatutako formuletan, borondatezko lanetan, interes orokorreko dokumentazioaren diseinuan eta elkargoak gaur egun ere jasotzen dituen ehunka maitasun-, eskertza- eta babes-adierazpenetan.

Halaber, bere aitortza eta esker ona adierazi zien publikoki Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kide guztiek (langileek, aholkulariek eta Gobernu Batzordeko kideek) krisi epidemiologikoko azken hilabete hauetan egindako lanagatik. Halaber, azpimarratu egin zituen euren prestasun handia, atsedenik eza, erakutsitako jarrera arduratsua eta egindako lanaren eta emandako arretaren emaitza nabarmena.

Presidenteak hitz egin ondoren, Roberto Romerok, Gobernu Batzordeko idazkariak, labur azaldu zituen elkargoko Administrazioak, Intrusismo Batzordeak eta Aholkularitza Juridikokoak eginiko jarduerak. Era berean, nabarmendu zuen Intrusismo Batzordeak lanean jarraituko duela, herritarrak sentsibilizatzeko hainbat kanpainaren bidez, lanbidea duintzeko eta fisioterapiako instrusismo profesionalari aurre egiteko. Ildo beretik, Aholkularitza Juridikoak ere bere lanarekin jarraituko duela esan zuen, besteak beste, zaintza-, kontrol-, babes- eta informazio-lanarekin.

Robertok hitz egin ondoren, Andrea Scolarik, Gobernu Batzordeko I. kideak, 2021erako Komunikazioko Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, eta alderdi hauek nabarmendu zituen:

- 2021ean “12 hilabete, 12 osasun-gomendio” kanpaina mantentzea. Kanpainaren helburua da herritarrak bideo-gomendioen bidez sentsibilizatzea fisioterapiaren abantailen gainean.
- Elkargoaren sare sozialei bultzada ematea.

Jarraian, Leyre Peñak, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko arduradunak, 2020an egindako ikastaroak laburbildu zituen, baita, momentuz, 2021ean egitekoak diren prestakuntza-proiektuak ere.

Parte-hartze horren ondoren, EFEOko diruzain Edurne Anduezak elkargoko kuoten eta matrikulen 2021erako proposamena azaldu zuen. Aho batez onetsi zuten.

Ondoren, 2021erako Aurrekontu Orokorrak aurkeztu eta aho batez onetsi zituzten. Honako hauek dira aurrekontuaren alderdi aipagarrienak:

- 2018-2022 aldirako Plan Estrategikoan jasotako kanpaina, proiektu eta politikei eustea.
- Ezagutzaren plataforma mantentzeko apustu irmoa egiten jarraitzea. Ezagutzako plataforma digital bat da, eta horren bidez, elkargokide guztiek libreki kontsulta ditzakete hainbat liburu tekniko eta eragin handiko hamar aldizkari digital.
- Elkargokideak protagonista dituzten lankidetza-proiektuak eta/edo proiektu solidarioak diruz laguntzera bideratutako partidari eustea.

Une horretan, Iban Arrienek zenbait gogoeta egin zituen, eta Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiaren hainbat ekintza, estrategia eta proiektu azaldu zituen, oro har.

Honako hauek dira nabarmendutako elementuetako batzuk : pandemiarekin lotutako alderdiak kudeatzeko estatu-mailan egindako lana; lanbidearen Kode Deontologiko bakar eta adostua aurrera ateratzeko proiektua; Estatutu Orokor berrien diseinua eta garapena; eta lanbidearen etorkizunerako funtsezkotzat jotzen ditugun alderdiak jorratzeko, hala nola, espezialitateak garatzea eta jarduera-esparruetan (lehen mailako arreta, arreta goiztiarra, hezkuntza-eremua...) ekintza zuzenak egitea, egin beharreko izapideak egin eta kontaktu politikoak kudeatzea.

Parte-hartze horren ostean, eskaera eta galderen atalari heldu zioten. Zenbait kontsulta egin ziren, eta EFEOko ordezkariek hitzeman zuten galdetu egingo zutela eta, hala badagokio, konpontzen saiatuko direla.

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie ohikoa ez bezalakoa izan zen batzarrera bertaratu ziren guztiei. Eta, bide batez, lerro hauek baliatu nahi ditugu elkargoaren proposamenetan modu aktiboagoan parte hartzera animatzeko.
.

*EFEOko Komunikazio Batzordea*

# Fisioterapiako Euskadi Sarien edizio berezia

Edizio honetan sari bakarra eman zaie Euskadiko fisioterapeuta guztiei, pandemian egindako lan eredugarriagatik eta euren erantzukizunezko jokabideagatik.







Edizio honetan sari bakarra eman zaie Euskadiko fisioterapeuta guztiei, pandemian egindako lan eredugarriagatik eta euren erantzukizunezko jokabideagatik.

COVID-19ak markatu duen ohiz kanpoko testuinguru honetan, EFEOk erabaki zuen Fisioterapiako Euskadi Sarien edizio berezi bat egitea Euskadiko fisioterapeuta guztiei pandemian egindako lan eredugarria eta euren erantzukizunezko jokabidea aitortu eta eskertzeko, eta zorionak emateko.

Sari horiek sei kategoria izaten dituzte eta hainbat profesionali ematen zaizkie fisioterapiaren osasun-diziplina garatu eta hedatzeagatik. Baina, edizio honetan, izaera berezia dute, fisioterapeuten kolektibo osoa saritzen baita.

Hala, honako hauen guztien lana aintzatesten da: COVID pazienteekin zainketa intentsiboetako eta erreanimazioko unitateetan lehen lerroan lanean ari diren fisioterapeutak; eremu pribatuan lan egiten dutenak eta funtsezko ariketa asistentzial gisa ariketa terapeutikoen garrantzia azpimarratu dutenak; birusari buruzko dokumentazioa prestatzen parte hartu dutenak; Osakidetzako fisioterapia-ekipoak, pazientea lehenbailehen oneratzeko ahalduntzen jakin dutenak; adinekoekin eta desgaitasuna dutenekin lan egiten dutenak; Fisioterapiako Graduko irakasle eta ikertzaileak, etorkizuneko belaunaldien prestakuntza bermatzen dutenak; eta hezkuntzaren eta arreta goiztiarraren arloko fisioterapeutak, zentroetan haurrekin eta haien gurasoekin lan egiten dutenak.







> *“Fisioterapiak rol garrantzitsu eta esanguratsua izan du pandemian, eta horrela izaten jarraituko du. Bideo honekin Euskadiko fisioterapeuta guztien lan bikaina aintzatetsi nahi dugu, aktiboki parte hartzen baitute euren lan-esparrutik COVID-19aren eraginak arintzen. Eskerrak eman nahi dizkiogu gizarteari ere gure lanean jarritako konfiantzagatik“*
>
> *Iban Arrien, EFEOko presidentea*

EFEOren ustez, sari hauek emateak inoiz baino zentzu handiagoa izan zuen, eta online egin bazen ere, pandemiak ezin izan zuen ekidin sari-banaketaren zeremonia egitea. Bertan, oroitzapenezko bideo batean, Fisioterapiaren hainbat arlotako kideek saria jaso eta banatu zuten, kolektibo osoaren izenean.

*Ikusi bideoa*

Mila esker denoi zuen ahalegin eta lankidetzagatik.

***EFEOko Komunikazio Batzordea***











Federico Montero Cuadradok eta Miguel Ángel Galán Martínek Urteko Fisioterapeuta Onenaren Saria jaso zuten Fisioterapiako Euskadi Sarien V. edizioan, 2019an.

Edizio hartan, Epaimahaiak erabaki zuen sari bat ex-aequo ematea lehen mailako arretan eta neurozientziaren, minaren edo desgaitasunaren arloko ikerketan aritzen diren bi profesional bikaini.

Sari hori 500 €-koa zen, eta “Effectiveness of a Physical Therapeutic Exercise Programme for Caregivers of Dependent Patients: a Pragmatic Ranematearen Controlled Trial from Spanish Primary Care” azterlana ordaintzen lagundu zuen. Gure sarituek azterlan horretan hartu zuten parte. Honako lotura honetan ikus daiteke:

*IJERPH | Free Full-Text | Effectiveness of a Physical Therapeutic Exercise Programme for Caregivers of Dependent Patients: A Pragmatic Randomised Controlled Trial from Spanish Primary Care | HTML (mdpi.com)*

EFEOk eskerrak eman nahi dizkie Miguel Ángeli eta Federicori, azterlana finantzatzen lagundu zuten erakundeen artean izendatzegatik.

***EFEOko Komunikazio Batzordea***



Fuente: Osaraba.eus

# Osakidetza: Fisioterapia Arreta Goiztiarrean

## Dagoeneko hasita dagoen bide zaila

Eusko Legebiltzarraren Osasun Batzordean Arreta Goiztiarrari buruzko batzorde txostengile bat osatzeko proposamenaren berri izan genuenean, EH Bildu taldearen ekimenari jarraikiz, joan den abenduaren 17an, eta Gobernu Batzordeak parte hartzeko eskaera formala aurkeztu zuen.

Zalantzarik gabe, Legebiltzarreko ekimen horiek aukera berriak ematen dituzte beste behin gure kolektiboaren eskaera historiko bat partekatu eta babesteko, hau da, fisioterapia eta arlo horretako profesionalak bete-betean sartzea Euskadiko Arreta Goiztiarraren eta Osasun Komunitarioaren laguntza-sarean. Hori da guk ulertzen duguna, eta EFEOk lanean jarraituko du helburu hori lortu arte.

Gaur arte, formalki jakinarazi digute gure eskaera dagoeneko jaso duela Bilkuren eta Batzordeen Atalak, eta, gure parte hartzeko proposamena aintzatetsi eta eskerrak eman ondoren, haien behin betiko estimazioa jasotzeko zain gaude.

Gure argudioak aberastu eta indartzeko, alorrarekin lotutako ezagutza eztabaidaezinak dituzten pertsona eta erakunde korporatiboen lankidetza izango dugu, eta adierazi digute prest daudela parte hartzeko eta euren esperientzia eta ibilbideak partekatzeko.

Horrekin batera, nola ez, gure atsekabea adieraziko dugu, ez soilik integrazio-programa horren garapen motelagatik, baizik eta baita ebaluazio-prozesuan protagonistak izateko eskatzen behin eta berriro bidali ditugun eskaerei erantzuna eman ez izanagatik ere.

### “Esperientzia pilotua” errepasatzen

2018. urtearen hasieran, garai hartan Osasun sailburua zen Darpon jaunarekiko bilera formal baten testuinguruan, EFEOko Gobernu Batzordeko ordezkariei handikeriaz betetako hitzak helarazi zizkieten: “guk esandakoa entzun zutela”, “gure eskakizuna beteko zutela” eta “kolektiboa nahiz diziplina Euskadiko Arreta Goiztiarreko zentro eta taldeetan sartzearen eskaera egi bihurtuko zela laster”. Garai hartan Iñaki Berraondo zen Osasun sailburuordea, eta Nekane Murga Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko arduradun nagusia.

Errespetuarekin eta erantzukizunarekin, proiektu hori ofizialki argitaratu arte itxaron genuen, gure hedabideen eta prentsa-oharren bidez hedatzeko, eta adierazi genien prest geundela bidea partekatzeko eta beharrezkoa zen guztian lankidetzan aritzeko.

*“Araban abian jarri den proiektu berri honen helburua da sorbaldako eta bizkarrezurreko mina duten pertsonen arreta hobetzea osasun-zentroetan, taldeko tratamendu hezitzaile baten bidez eta Gasteizko Udalaren kirol-jardueren udal-programarekin koordinatuta”. (Darpon jauna, Osasun sailburua)*

Apirilaren hasieran, EFEOk horren berri eman zuen, hainbat hedabidetan argitaratu baitzen gure babesa eta asebetetzea hartutako erabakiekiko:

*“Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala (EFEO) pozik dago Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak aurkeztutako proiektuarekin, haren helburua baita fisioterapia sartzea Osakidetzaren arreta goiztiarraren zerbitzuetan. “Jon Darpon Osasun sailburuak egindako iragarpenarekin bat gatozela esan nahi dugu, gure kolektiboaren aldarrikapen historiko bati erantzuten baitio”, adierazi du Jon Herrero EFEOko presidenteak”.*

*“Prest egongo gara beharrezkoa denean biltzeko, errehabilitazioaren indartzearen eta fisioterapiaren proiektuak babesteko eta alor horretan dugun esperientzia zabala partekatzeko. Benetan uste dugu bat-egite horren abantailak agerian geldituko direla prozesuan zehar, eta espero dugu Osakidetzaren sare osoan orokortzea”, azpimarratu du EFEOko presidenteak”.*

Hilabete batzuk geroago, lehen esperientzia pilotu hori abian jarri zen, eta guk gogo handiz bizi genuen. Arabako hiriburuan, Zabalganako Osasun Zentroan, proiektu itxaropentsu horren lehen urratsak eman ziren: Arabako ESIaren arreta goiztiarraren hiru unitatek hartu zuten parte (Zabalgana, Sansomendi eta San Martin).

Berehala egin ziren publikoak lehen emaitzen balantzeak, eta gure zerbitzuaren lehen erabiltzaileen asebetetze-maila handiak hedapen mediatikoa izan zuen, gure lankide protagonisten lan onari esker. Elkarrizketa batzuk ekarriko ditugu gogora: *http://osaraba.eus/es/el-programa-de-fisioterapia-en-atencion-primaria-llega-a-salburua-y-lakuabizkarra-2/*; arlo ekonomikoko prentsara ere iritsi zen: *https://www.finanzas.com/consumo/osakidetza-lleva-la-fisioterapia-a-un-centro-de-atencion-primaria-de-vitoria_13960367_102.html)*

*“Kasuen % 60 baino gehiagotan, pazienteen tratamendua hasi eta hilabete batean amaitzen dute tratamendua; gainera, % 85ak hobekuntza klinikoa izaten du. Programaren erabiltzaileen artean, asebetetze-maila hamarretik bederatzikoa da”.* *https://www.noticiasdealava.eus/araba/2020/02/08/fisioterapia-extendera-centros-salud/1011048.html)*

Ondoren, bigarren fasean, “erabiltzaileen asebetetzea eta maila funtzionalean lortutako emaitzak ikusita”, Osakidetzak erabaki zuen bere eragin-eremua zabaltzea Gazalbide eta Olarizu osasun-zentroetako erabiltzaileen kolektibora. Horrez gain, adierazi zen “aurreikusten zela zerbitzua ospitaleko tratamendua behar ez duten beste gaixotasun batzuetara zabaltzea”.

Darpon jaunak dimititu ondoren, Murga andrea izendatu zuten sailburu. Gobernu Batzordeak bere ikuspuntu historiko eta irmoa helarazi zion, eta talde berriari eskatu zion “hasitako proiektu horrekin jarraitzeko”.

2020ko otsailera arte itxaron behar izan zuten programa berriro hedatzen zutela ikusteko, proiektuarekin lotutako bi zerbitzu berri abian jarri baitzituzten (Salburua eta Lakuabizkarra osasun-zentroak). Murga andreak hedabideei adierazi zien Sailaren helburua zela fisioterapia “progresiboki” hedatzea Euskadiko Arreta Goiztiarreko unitate guztietara. *https://www.diariovasco.com/sociedad/salud/sagardui-objetivos-salud-euskadi-20200908125447-nt.html*

Ulertzen dugu pandemiarekin batera osasun-politiken proiekzioa aldatu izana, ezinbestekoa baitzen lehentasunak berrantolatzea. Hala ere, inor ez dadila iruzurrean erori: Arreta Goiztiarraren aldeko apustua egitea, pandemian eta pandemiatik kanpo, alor soziosanitarioaren laguntza-integrazioa egonkortu, hedatu eta aurreratuz, osasun komunitarioko arriskuak prebenitzeko, babesteko eta hautemateko mekanismo onenetako bat da ziur asko, kostua eta eraginkortasuna kontuan hartuta.

Alde horretatik, fisioterapia eta arloko profesionalak osasun komunitarioaren programetan sartzearen aldeko apustua egitea osasun-politika ekologikoaren alde egitea da, kostua eta eraginkortasuna kontuan hartuta, eta pazienteen hezkuntza- eta ahalduntze-programek oso emaitza onak izan dituzte, beharrezko ebidentziarekin, eta hori ez da soilik gure esperientzia pilotuan jaso, baizik eta baita beste eskualde askotan urtean zehar egindako lanean ere. Bada garaia 2018. urtearen hasieran abiarazi zen “esperientzia pilotu” hori egonkortzeko eta gure kolektiboa bete-betean Arreta Goiztiarraren talde eta zerbitzuetan sartzeko.

Egia da Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailburu berriak, Gotzone Sagarduik, jakinarazi duela Arreta Goiztiarra indartu nahi duela erronka berriei aurre egiteko neurri nagusi gisa. Beraz, adierazi behar diogu zein rol izan behar duen gure fisioterapia maiteak.

Hori kolektibo osoaren lana da, zalantzarik gabe, eta erakunde honentzat lehentasun bat da hori.

***Roberto Romero***

# UPV/EHUko udako ikastaroa 2020: Desgaitasuna eta zahartzea, zahartzea eta desgaitasuna

Euskal Herriko Unibertsitatearen 2020ko udako ikastaroen programaren barruan, urriaren 23an zuzeneko sareko formatuan aurkeztu zen Erronkak eta aukerak: desgaitasuna eta zahartzea, zahartzea eta desgaitasuna ikastaroa, zeinak modu integralean eta diziplinartekoan jorratu zituen zahartze-prozesua eta desgaitasuna. Hitzordua 9:00etan hasi eta 13:00etan amaitu zen, eta 100 parte-hartzaile inguru izan zituen.

2019an EFEOren eta Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkargoaren (Zahartzaroa) artean sinatutako lankidetza-akordioari esker, aktiboki hasi ginen parte hartzen "Desgaitasuna eta Zahartzea" lantaldean; Asier Arrizabalaga Otaegui lankideak (elkargokide-zk.: 383) koordinatzen du taldea, eta bertan planteatu zen prestakuntza hori egitea.

EFEOk parte hartu zuen babesle gisa, eta 20 matrikularen zenbatekoa ordaindu zuen (700 euro); horiek elkargokide interesdunen artean zozketatu ziren. Horrekin batera, Elkargoak parte hartu zuen ikastaroa egituratu eta abian jartzeko prozesuan, eta laguntza eman zien zuzendaritzaz arduratu ziren pertsonei, hau da, Igone Echeberria Arrichabali eta Asierri.

Programa oraindik eskuragarri dago esteka honetan: *https://www.uik.eus/eu/curso-online-en-directo-retos-y-oportunidades-discapacidad-y-envejecimiento-envejecimiento-y*



Aurreratzen dugu dagoeneko antolatzen ari direla 2021erako beste udako ikastaro bat, eta EFEOk horri buruzko informazioa emango du aldian behin.

***Andrea Scolari***

## 2020ko Arreta Goiztiarraren Eguna EFEOn



Joan den ekainaren 16an, 11:00etan, gure elkargoaren egoitzan Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkarteen Espainiako Federazioak (GAT) idatzitako manifestua irakurri zen, Arreta Goiztiarraren Egunaren harira, Liburu Zuriaren aurkezpenaren 20. urteurrenean.

Ekitaldia  Euskal Herriko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkarteak (APATPV-EHAGPE) antolatu zuen, eta Zoom plataforman eman zen. Beste elkargo profesional batzuetako ordezkariek ere parte hartu zuten aurrez aurre.

Manifestua *hemen* ikus daiteke.

***Andrea Scolari***

# Arreta Goiztiarreko Fisioterapiaren Esparru Dokumentua

Joan den urriaren 28ko prentsaurreko birtualean aurkeztu zen "Arreta Goiztiarreko Fisioterapiaren Esparru Dokumentua", Fisioterapeuta Elkargoen Batzorde Nagusiaren (FEBN) Hezkuntza eta Arreta Goiztiarreko Fisioterapiaren lantaldeak prestatu zuena.

Ekitaldian Gustavo Paseiro Ares FEBNaren presidenteak eta dokumentua idatzi zuen lantaldeko kide Javier Merino Andrések hartu zuten parte. Aurkezpenaren ondoren, web-mintegi tekniko bat egin zen, non dokumentuaren aurkezpen zabalagoa eta espezializatuagoa egin zen. Ekitaldia esteka honetan ikus daiteke:

*https://www.youtube.com/watch?v=qonYcbqr1kU*

FEBNaren hitzetan, Arreta Goiztiarreko Fisioterapiaren Esparru Dokumentuak Espainiako Arreta Goiztiarreko Fisioterapiaren egungo egoera deskribatzen du, arlo horretako fisioterapeuten zeharakako eskumenak eta eskumen espezifikoak identifikatu eta deskribatzen ditu, gai horrekin lotutako kalitatezko estandar akademiko eta zientifikoak definitzen ditu, Arreta Goiztiarrean parte hartzen duten sektoreen arteko koordinazioa baloratzen du (Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak), fisioterapeuten rola deskribatzen du eta jarduketa komunitarioko estrategiak identifikatu, definitu eta proiektatzen ditu, haurrak eta familiak euren ingurune soziokulturalen bete-betean integratzeko.

EFEOk Kattalin Sarasola Gandariasbeitia gure lankidearen (elkargokide-zk.: 11069 parte-hartzea nabarmentzen du, idazketaz arduratu den adituen taldeko kide gisa. Haren ekarpenak V. kapituluan (Jarduketa Komunitarioko Estrategiak) ikusi daitezke.

Nola ez, beharrezko baimenak lortu ondoren, EFEOk dokumentua euskarara itzuli zuen, eta ondoren hedatu egin zuen  Euskal Herriko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin (APATPV – EHAGPE) lankidetzan. Hedapen horretan, honako hau adierazi zuen gure kolaboratzaileak: "Erakunde honen ustez, FEBNak egindako lanak Arreta Goizitiarraren alde egiten du zalantzarik gabe, erreferentziako dokumentua baita alor horretako jardun profesionalerako. Horrez gain, "prestaketan parte hartu duten pertsona guztiei zorionak eman nahi dizkiegu, dokumentu honek fisioterapiaren mugaketa profesionala egonkortzen baitu; hori funtsezkoa da haurren esku-hartzeak eskatzen duen diziplinen zeharkakotasunari begira, bai zuzeneko arretan eta bai prebentzioan eta esku-hartze komunitarioan".

Esteka honetan dago eskuragarri dokumentua:  *https://cofpv.org/doc/Fisioterapia_arreta_goiztiarrean.pdf*

EFEOk eta APATPV-EHAGPEk lanean jarraituko dugu Euskadin Arreta Goiztiarra garatzen eta sustatzen.

***Andrea Scolari***



# Fisioterapia-protokoloa birika-erauzketa onkologikoko kirurgiarako

Arnas fisioterapia ospitalearen esparruarekin lotu da ia esklusiboki azken hamarkadetan, eta, bitxia bada ere, ez zuen beti fisioterapeuta batek ematen. 2005. urtean, dinamika horren ildotik, Donostiako Unibertsitate Ospitalean toraxeko kirurgia egin zitzaien pazienteei “arnas fisioterapia” ematen zitzaien kirurgia ondoko arretaren parte gisa ospitalean zeuden bitartean. Protokolorik gabeko arreta-zerbitzua zen, eta ez zuten beti gure zerbitzuko fisioterapeutek gauzatzen.

fGarai hartan, literatura zientifikoan, “prehabilitazioa” eta ERAS / Fast Track protokoloak aipatzen hasiak ziren. Egungo kontzeptuak dira; kirurgia aurreko faseko jarduketa multzo bat barne hartzen dute, eta ebakuntza ondoko ibilbidea errazteko helburuarekin aplikatzen dira.

2006ko otsailean, artikulu bat argitaratu zen European Journal of Cardio-Thoracic Surgery (1) aldizkarian (egileak: Varela et als.). Argitalpen hori fisioterapeuten ibilbidearen abiapuntua izan zen gure ospitalean toraxeko kirurgiaren esparruan, eta bide horrek eraman gaitu Anestesiologia eta Bizkortzearen Espainiako Elkartearen (SEDAR, gaztelaniazko siglengatik) Guía clínica del manejo anestésico-quirúrgico de la cirugía de resección pulmonar por videotoracoscopia (Bideotorakoskopia bidezko birika-erauzketako kirurgiako maneiu anestesiko-kirurgikoari buruzko gida klinikoa) gidan parte hartzera. Eta gida hori da, hain zuzen ere, artikulu honen xedea.

Bertan, arnas fisioterapiako programa bat aurkeztu zen ebakuntza ondoko konplikazioak prebenitzeko, ospitaleko egonaldiak murrizteko eta birika-erauzketa onkologikoko prozesuetako (lobektomiak) kostuetan aurrezteko helburuekin.

Erizainen zaintza-errutinaren barruan, ariketa aerobikoa eta espirometria indartuko maniobrak gomendatzen ziren, eta, horren aurrean, fisioterapeuten eskutik, gainbegiratutako ariketa aerobikoa, arnas fisioterapia (aireztatzeko eta eztul produktiboko ariketak irakastea) eta gorputz-adarrak mugiarazteko ariketak barne hartzen zituen programa bat ezarri zen. Programa hori kirurgia aurreko azken egunean abiarazten zen, eta ospitalean alta ematearekin batera amaitzen zen.

Artikuluak ospitaleko Toraxeko Kirurgiako orduko zerbitzuburu Carlos Hernándezen, interesa piztu zuen, eta bi zerbitzuek modu antolatuan lankidetzan jardun zezatela planteatu zuen.

Horren emaitza pazienteak kirurgia aurreko fasean prestatzeko proposamen bat izan zen. Prestaketa horren helburua zen kirurgia ondoko emaitzak hobetzea (atelektasia, pneumonia eta ospitalean igaro beharreko egunen tasa murriztea), pazienteak euren prozesuetan askoz gehiago inplikatzearen bidez (paziente proaktiboak). Hau da, programaren xedea zen heziketaren (jarduera fisiko osasungarriko jarraibideak irakastea) eta arnas fisioterapiaren (toraxa zabaltzeko eta sekrezioak kanporatzeko ariketak) bidezko ahalduntzea bultzatzea, pazienteak egoera onean eta harkorrago zeuden momentuan.

Arreta-ekitatea (edozein pazientek baliabide hori eskuratu ahal izatea erraztea/bermatzea) ezinbestekoa zen programak arrakasta izan zezan. Eta, hori bermatzeko, Gipuzkoa eta Arabako fisioterapeutak prestatzeari ekin zitzaion, eremu geografiko horietatik baitzetozen gure ospitaleko toraxeko kirurgiarako pazientegaiak.

Fase horretan egin beharreko jarduketen multzoa berme berdinekin ezar zitekeen ospitale eremuan nahiz etxebizitzetatik gertueneko ospitalez kanpoko arreta-puntuetan.

Horiek horrela, toraxeko eta abdomeneko kirurgiarako pazientegaiek, kirurgia aurreko fase batean, prozesuari buruzko informazioa, mantentze eta berregokitze funtzionaletako jarraibideak eta ebakuntza ondoren berehala aplikatu ahal izateko arnas ariketei buruzko ezagutzak jaso zitzaketen anbulatorioetan bertan.

2007an zehar, toraxeko kirurgia egingo zitzaien pazienteak artatzeko zirkuitu azkar bat finkatu zen. Hala, zirujauaren kontsultatik automatikoki bideratzen zen pazientea inplikatutako errehabilitazio-zerbitzuetara.

2010-2011 urteetan, lankidetza horren ondorioz, Donostiako Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuak (2 fisioterapeuta eta 1 mediku) 2011ko azaroan Donostiako Ospitalean argitaratutako Protocolo diagnóstico y terapéutico del carcinoma pulmonar no célula pequeña (Zelula ez-txikiko birika-kartzinomaren protokolo diagnostiko eta terapeutikoa) argitalpenean parte hartu zuen (Google bidez aurkitu daiteke).

Urteek aurrera egin ahala, gero eta pisu handiagoa du literatura zientifikoan kirurgia aurreko egokitzapen funtzionalaren onurak, entrenamendu egituratuetan eta kirurgia ondoko mugikortasun goiztiarrean (Fast Track) oinarritzen dena. Irizpide horiei jarraikiz, gure zerbitzuak ahalegin osoa egin zuen azaldutako jarduketa-lerroa gauzatu ahal izateko ekipamendu lortzeko (bizikletak, zinta, eliptikoa, halterak eta indar-makinak). Hauxe izan zen emaitza: prehabilitazioa, bere zentzu osoan, 2014. urtearen amaieran finkatu genuen, eta aitzindariak izan ginen Osakidetzan alderdi guztiak modu integralean



gauzatzeari dagokionez (heziketa, entrenamendu gidatua —aerobikoa eta indarrekoa— eta arnas fisioterapia bera).

2018 eta 2019 artean, Protocolo de fisioterapia en cirugía de resección pulmonar oncológica (Birika-erauzketa onkologikoko kirurgiarako fisioterapia-protokoloa) argitalpenean parte hartu genuen. Protokolo hori hiru lurraldeetako Osakidetzako fisioterapeutek egin zuten esklusiboki, kanpoko kolaboratzaile baten laguntzarekin. Intranetean eta esteka honetan ikus daiteke:

*https://cofpv.org/doc/Protocolo%20de%20Fisioterapia%20en%20Cirugi%CC%81a%20de%20Reseccio%CC%81n%20Pulmonar%20Oncolo%CC%81gica.pdf*

2018an, Euskadi eta Nafarroako Arnas Patologia Elkartearen (ENAPE) XXXI. Biltzarrean parte hartzera gonbidatu gintuzten, non toraxeko kirurgiako prehabilitazioari buruzko hitzaldi bat egin genuen. Gure esperientziak partekatu genituen bertan gure ospitaleko anestesista batekin, eta hark proposatu zigun Anestesiologia eta Bizkortzearen Espainiako Elkartearen (SEDAR) Guía clínica del manejo anestésico-quirúrgico de la cirugía de resección pulmonar por videotoracoscopia (Bideotorakoskopia bidezko birika-erauzketako kirurgiako maneiu anestesiko-kirurgikoari buruzko gida klinikoa) gidan parte hartzea, garai hartan berrikuspen-fasean zegoena.

Bideotorakotomiak aurrerapauso erraldoia ekarri du toraxeko kirurgiaren esparruan. Hain agresiboa ez den teknika horri eta minaren maneiuan eta kontrolean aplikatutako aldaketei esker, ebakuntza ondoko konplikazioak eta ospitaleko egonaldiak murriztu egiten dira.

Aurrerapen horiek geure rola baztertuko dutela pentsa daitekeen arren, ebidentziak gure jarduketaren alde egiten du, bai eta prehabilitazioaren beraren alde ere, kirurgian arrakasta-aukerak handitzeko faktore gisa.

Hori horrela, Toraxeko Zirujauen Europako Sozietateak (European Society of Thoracic Surgeons- ESTS-) irmoki gomendatzen du biriketako funtzio mugatua edo biriketako gaitasun urria duten pazienteek prehabilitazioa egin dezatela birika-erauzketako kirurgiaren aurretik (2).

Prehabilitazioaren bidezko ebakuntza aurreko jarduketari esker, pazientearen egoera funtzionala hobetzen da, beste garai batzuetan kirurgia handietarako pazientegaiak izango ez ziren horien egoera barne. Ebidentziak gure jarduketaren alde egiten du, baita prehabilitazioaren alde ere faktore erabakigarri gisa, kirurgia ondoko arrakasta-aukerak areagotzen baititu.

Gero eta presenteago gaude osasun-prozesuetan, eta argi dago fisioterapia arreta-jardueraren ezinbesteko alderdia dela, diziplina anitzeko ekipoetan integratu behar dela eta egokitzapen etengabean dagoela unean-unean definitutako ezagutzekiko.

(1) G Varela, et al. Cost-effectiveness analysis of prophylactic respiratory physiotherapy in pulmonary lobectomy. EUR J Cardiothoracic Surg 2006, Feb; 29 (2):216-220.
